



JAIETAN ERASO SEXISTEN AURREAN JARRAIBIDEAK

ZERGATIK?

- Jai parekideak lortu behar dugulako.
- Jaietan (jai-gunetan, kaleetan edota tabernetan) ere eraso sexistak gertatzen direlako.
- Elorrio BELDUR BARIK HERRIA lortu behar dugulako (*"Kaleak, gauak eta jaiak GEUREAK DIRA!"*).
- Guztion erantzukizuna delako.

ZERTARAKO?

- Erasoak prebenitzeko.
- Eraso sexisten inguruan sentsibilizatzeko.
- Eraso baten aurrean, erasotua babesteko eta arreta egokia emateko.
- Eraso baten aurrean, zer egin behar den jakiteko.
- Eraso baten aurrean, ahalik eta hoberen koordinatzeko eta erantzun egokia emateko.

ZER DIRA ERASO SEXISTAK?

Indarkeria sexista¹:

- Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke.
- Emakumea izateagatik sufritzen den indarkeria, gizon batzuek erabiltzen dute emakumeenganako kontrola eta agintea izateko.
- Joera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egiteko mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.

Genero-indarkeria²:

- Kultura matxistak ezarritako genero, sexu eta sexualitatearen arabeko jendarte-arauak apurtzen dituen ororen kontrako indarkeria.
- Indarkeria mota hauek batzen ditu: fisikoa, psikiko, askatasun sexualaren kontrako erasoak, mehatxuak, derrigoritzea edo askatasuna gabetza arbitrarioak.
- Erasotzaileak senarra, senarra izandakoak edo bestelako harreman afektiboko bikotekideak izaten dira, nahiz eta elkarrekin bizi ez.

Sexu-erasoak:

- Bestearen sexu-askatasunaren kontrako edozein jokabide bortitz edo derrigorrezkoa.
- Bortxaketa da sexu-erasoa baginatik, ipurditik edo ahotik egitea edo gorputz atalen bat edo objektuak baginatik edo ipurditik sartu direnean.

Eraso sexistak:

- Horietaz aparte, eraso sutilagoak: begirada lizunak, jokoak kanpoko lizunkeriak, gorputzeko edozer atal ukitzea baimen barik, agobiatzea, kontrolatzea, jeloskortasuna...

¹ Durangaldeko Erakundearen Arteko Koordinaziorako I. Protokoloan adostutako terminologia

² 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralaren neurriei buruzkoa.

ZER DAGO ELORRION?

- Durangaldeko Erakundeen Arteko Koordinaziorako I. Protokoloa (2011an sinatuta):
 - o Helburuak: koordinatzea, indarkeria prebenitzea, erasotuari arreta ematea eta errekursoak eraginkor erabiltzea.
 - o Partaideak: Elorriko, Durangoko, Abadiñoko eta Berrizeko Udalak, Ertzaintza, Osakidetza, Durangaldeko Amankomunazgoa.
- Udal konpromisoak:
 - o Martxoak 8
 - o Maiatzak 17
 - o Ekainak 28
 - o Azaroaren 25eko Erakunde Adierazpeneko konpromisoa.
- Giza-baliabideak:
 - o Udaltzainak
 - o Gizarte langilea
 - o Berdintasun teknikaria
- Beldur Barik Programa:
 - o Beldur Barik Jarrera
 - o Jaietan Beldur Barik Gunea

ZER EGIN ERASOEN AURREAN?

BETI

- Erasotua babestu, bere iritzia eta nahia errespetatu eta konfidentzialtasuna gorde.
- Koordinatu
- Erasotzailea nor den identifikatu
- Zurrumurruak saihestu eta moztu

PREBENTZIO LANA

Zertarako	Erasoa gertatu ez dadin
Noiz	Jaiak prestatu baino lehen Edozein eraso gertatu baino lehen
Nortzuk	Jaien antolatzaileak eta eragilea: Udala, Jai Batzordea, koadrilak...
Zelan	<ul style="list-style-type: none"> o Emakumeentzat espazio librea direla irudikatu behar dute jai guneek. Bertan erasotzaileak gaizki hartuak direla eta erasorik ez dela onartzen argi eta garbi jakinarazi behar da. o Erasoen kontrako propaganda egon behar da herrian, jai egunetan eta jai lekuetan. o Ekimen konkretuak: erasoen aurkako esku-orriak, kartelak, propaganda, erasoen kontrako arbela bat jarri txosnaren batean, erasoen kontrako kuña bat jarri txostenetan edo tabernetan...



ERASO BATEN AURREAN EGIN BEHARREKO ERANTZUNA

Eraso bortitz baten aurrean, zelan jokatu?

Zertarako	<ul style="list-style-type: none">- Erasotua laguntzeko eta babesteko- Erantzuna koordinatzeko
Noiz	<ul style="list-style-type: none">- Eraso sexista ematen ari dela ikusten denean- Norbait laguntza eske hurbiltzen bada
Nortzuk	Edonor, Jai Batzordea...
Eman beharreko urratsak	
<ol style="list-style-type: none">1. Eraso sexista ematen ari dela ikusten baduzu, erosotua erasotua joko eta laguntzarik behar duen galdetu.2. Inor hurbiltzen bazaizu salaketa jartzera edo laguntza eske, lehenetsuna eman.3. Arreta eta errespetu handiz entzun. Babes osoa eskaini emozionalki, eta ez utzi bakarrik.4. Premiazko laguntza behar badu, deitu:<ul style="list-style-type: none">o 112 telefonora, erasotua beharrezko laguntza jaso dezano Udaltzaingora 946 820 218 eta 657 792 383 (jaietako ostiral, larunbat eta igandean egun osoan; lanegunetan 06:30-22:00)o Durangoko Ertzaintzara 944 669 300 egon berarekin horiek heldu arte.5. Erasotzailea identifikatu6. Jai Batzordeko arduradunari jakinarazi (688 641 853, jaietan eraso sexisten aurreko erantzuna koordinatzeko)7. Galdetu emakumeari ea salaketa jarri nahi duen ala ez	
Salaketa jarri nahi badu	
<ol style="list-style-type: none">8. Bortxaketa bada, jakinarazi behar diogu ez duela arropaz aldatu behar, ez eta bere burua garbitu behar ere; eta aho-bortxaketa bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko frogak desagertu ez daitezen.9. Osakidetzara jotzen bada: Galdakaoko Ospitalea (24 ordu): Labeaga Auzoa, z/g- 944 007 000 Elorrioko Osasun zentroa (lan egunetan 08:00-15:00): Esteibarlanda kalea, 10-94 623 8070 Azaldu mediku-azterketa egingo diotela Ospitaleak egin beharko luke, baina badaezpada, eskatu salaketa izapidetzeko.	
Ez badu salaketa jarri nahi	
<ol style="list-style-type: none">8. eta Ertzaintzara, Ospitalera edo Osasun Zentrora jo behar badu, jakin behar du salaketa izapidetu behar dutela; beraz, ondo pentsatuko du zer informazio eman nahi duen.	
Ez badaki salaketa jarri ala ez	
<ol style="list-style-type: none">8. Telefono hauek eskaini, bertan informazioa eska dezan: 24 orduz: 900 840 111 Gizarte langilea: 946 20 04 92 Berdintasun Arloa: 946 58 27 12	



Ondoren, Jai Batzordeak egin behar duena

- Aztertu kasua eta errespetatu erasotua erabakia, intimitatea eta konfidentzialtasuna.
- Jai batzordekide gehientsuenak bildu eta erantzuna zehaztu.
- Udalari jakinarazi Durangaldeko Protokoloaren mekanismoa martxan jar dezan.
- Herri mailako mobilizazioak:
 - gertatu eta berehalakoak: erasoen aurkako kuña jarri, txosnak ixtea – une batez edo guztiz- musika kendu ...
 - hurrengo egunetan: kontzentrazioak, kartelak, artikulak komunikabideetara.
- Emakumeari begirako laguntza ildoak: eskualdean dauden errekurtsoen berri ematea, laguntza soziala. Emakumea babestu behar da. Gizarte Langilearengana bideratu.
- Plan komunikatibo bat egin: herriko komunikabideen zerrenda, irizpideak, prentsa-aurrekoa, kartelak...
- Erasotzailea zein den ezagutzuz gero: bere bazterketa soziala bilatu (tabernetan, kaleetan...)
- Instituzioei begirako interpelazioa: sexuen arteko parekidetasunaren aldeko jarduerak eraginkor bat, mozio bat aurkezteko proposamena...

Bestelako eraso sexistak baldin badaude, zelan jokatu?

Zertarako	<ul style="list-style-type: none">- Erasotua laguntzeko eta babesteko.- Erantzuna koordinatzeko.- Eraso sexistak jai-guneetatik desagerrarazteko.
Noiz	<ul style="list-style-type: none">- Gugana norbait erasotua izan dela esanez badator edo txosnatik norbait erasotzen, molestatzen (kaka ematen, <i>baboseatzen</i>) ari dela ikusiz gero.
Nortzuk	Edonor, Jai Batzordea...

Jai Batzordeak egin behar duena

1. Erasoa identifikatu: entzun, eraso zehaztu, egiaztatu...
2. Galdetu erasotuari ea laguntzarik behar duen. Ezetz badio, ez dugu intsistitzen jarraituko.
3. Baietz badio, gure laguntza eskainiko diogu. 112 SOS Deiak: larrialdi zerbitzuetara jo behar badu, osasun-arreta jaso dezan; edo salaketa ipini gura badau, Ertzain-etxean ipini dezan.
4. Aztertu kasua eta errespetatu erasotua erabakia, intimitatea eta konfidentzialtasuna.
5. Txosnako arduradunari edo Jai batzordeko kideren bati jakinarazi (688 641 853, jaietan eraso sexisten aurreko erantzuna koordinatzeko)
6. Musika duen txosnan erasoaren kuña jartzeko eskatu edo mikrotik salatu.
7. Erasoa salatzeke, txosnetan dagoen "Eraso sexistarik ez" arbelean gertaera idatzi (erasotua datu pertsonalik gabe).
8. Jendeari zabaldu (kartel bidez, mikrofonoa...). Kontuz, zurrumurruekin eta gaizki- ulertuekin! Komeni da neskak erasotzailea ezagutzea.
9. Txosnagunetik edota tabernetatik erasotzailea kanporatu, erasotzaileari gunetik alde egiteko eskatu. Ez badu erantzuten jai batzordearen kide ezberdinak saiatu eta denen artean kanporatu.

Gogoratu, erantzun bateratua ematea talde guztien ardura da